

Liburutegien erronkak eta aukerak aztergai Donostiako Udal Liburutegian

Hitzaldi bana egingo dute Lluís Anglada eta Javier Celaya adituek, eta profesionalentzako mintegia ere izango da

ERREDAKZIOA. DONOSTIA

Donostiako Liburutegiaren Eguna ospatzeko, XXI. mendeko liburutegien erronka eta aukera berrien inguruko jardunaldiak egingo dituzte gaur, bihar eta etzi Donostiako Udal Liburutegi zaharrean, Lluís Anglada eta Javier Celaya adituen parte-hartzearekin. Anglada Kataluniako Unibertsitate Liburutegien Partzuergoko zuzendaria da, eta OCLC Online Computer Library Centerren Kontseilu Globaleko kide izendatu dute. Celaya Entrelectores sare sozialeko eta Gestion Cultural Formacion y Comunicacion enpresaren zuzendaria da.

Angladak egingo du lehen hitzaldia, gaur, 19:30ean, liburutegi birtualari buruz; bihar eguarterean, profesionalentzako mintegia egingo dute, Arantza Mariskal Tabakalerako mediatekaren arduradunak moderatua; eta etzi, 19:30ean, Celayak aro digitaleko liburutegiak aztertuko ditu. Donostia Kulturak, Tabakalerak eta Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalek antolatutako jardunaldiak, eta hitzaldietako sarrera doan izango da. Hiriko beste hainbat liburutegi tan musika emanaldiak, ipuin kontaketa eta bestelako ekimenak izango dira.